

AIZKORRIN BARRENA mendi martxako ibilbideak diseinatzerakoan hainbat faktore izan dira kontuan eta, horien artean, historikoak eta naturaren ingurukoak pisu handia izan dute. Ez dira, beraz, edonola aukeratutako ibilbideak. Hori dela eta, urriaren 12an aukera izango dugu Legazpi eta Aizkorri beste ikuspegi batetik ere ezagutzeko.

BIDE HISTORIKOAK

Ibiliko garen bide guztietatik hiru nabarmenduko ditugu, Legazpiko historian izan duten pisu handiarengatik:

Aitzondoko mandabidea: Goierritik Araba aldera joateko merkatarien bide zaharra. Legazpitik Zaldueñora eta Galarretara joateko biderik motzena zen, bestalde.

Erromes Bidea: zegamarrak eta zeraindarrak bide honetatik joaten ziren Arantzazura erromes. Aizkorri Barrena mendi martxarako aspaldiko 50 urtetan erabiltzen ez den bide zatia garbitu dugu, Intzuntzaetatik Txiplategietara bitartekoa.

Biozkornako bidea: Legazpitik Araba aldera, Urbian barrena, doan bidea. Bide gatazkatsua XVI. mendean, Segurarekin sortu ziren tirabirengatik. Bide horren lehenengo zatia Legazpiko Erromes Bidea da.

BURDINOLAK

Ibilbidearen hasieran, Igeraldetik Brinkolazar bitartean, garai batean lau burdinola ere bazeuden: *Olazar*, *Arabaolatza*, *Gibelola* eta *Brinkola*. Olazar burdinolaren pareta zaharrek zutik dira eta Arabaolatza auzoan, burdinolaren jabea bizi zen etxea ikus daiteke: *Etxeaundi*. Aldamenean, Guridi deituraren sorlekua: *Guriditegi*, armari eta guzti.

Burdingintzak garrantzi handia izan zuen Legazpin eta, hori dela eta, eskubide zabalak zituen Araba eta Gipuzkoako Partzuergoan bertatik egurra ateratzeko (eta egur horrekin ikatza egiteko). Horren ondorioz, Legazpirenak dira **Oltzako** 165 Ha-tan zabaltzen diren arbolak. Ibilbide handia bertatik igaroko da.

IZENAK



Euskal Herriko bazter guztietan bezala Legazpin ere antzinako leku-izenak gorde dira gaur egunera arte. Aizkorri Barrena ibilbideetan honako hauetatik igaroko gara, besteak beste:

Olazar – *Arabaolatza* – *Gibelola* – *Iruerreakaeta* – *Antsumaitz* – *Urkurutza* – *Oazurtza* – *Intzuntzaeta* – *Altzolazabal* – *Arlepo* – *Txiplategieta* – *Arriurdin* – *Amabirjiñaren sillea* – *Katabera* – *Nardegi* – *Jandoain* – *Trikuetxeta* – *Bederatziiturrieta* – *Barrendiola*

Baita hauetatik ere: *Iturzabal* – *Santiespiritu* – *Sandrati* – *Portugaña* – *Oltza* -*Arbelar* – *Aizkorritxo* – *Artzanburuzabal*

← *Amabirjiñaren sillea, Kataberan*

A la hora de diseñar los recorridos de la marcha montañera AIZKORRIN BARRENA se han tenido en cuenta factores históricos y paisajísticos. Precisamente por eso, el día de la marcha tendremos oportunidad de conocer Legazpi y Aizkorri desde otra perspectiva.

RUTAS HISTÓRICAS

Caminaremos por tres rutas muy importantes en la historia de Legazpi.

El mandabide o camino de mulas de Aitzondo (en el recorrido largo): esta es una antigua ruta comercial muy importante entre el Goierri y Araba, y la más corta para llegar a Zaldondo y Galarreta desde Legazpi.

El camino de peregrinos de Zegama a Aranzazu (en el recorrido corto): los romeros de Zegama y Zerain utilizaban este camino para dirigirse a Arantzazu. Para esta marcha hemos recuperado el antiguo tramo (totalmente desconocido) que iba de Intzuntzaeta a Txiplategieta, pasando por Altzolazabal.

La ruta de Biozkorna (al final de los dos recorridos): antiguo camino que iba de Legazpi a Araba a través de Urbia. Este camino originó cantidad de pleitos con los mandatarios de Segura en el siglo XVI. El tramo entre Jandoain y Katabera coincide con el camino de peregrinos de Legazpi a Arantzazu.

FERRERÍAS

En el camino de la estación de Brinkola a Brikolazar había antiguamente cuatro ferrerías de agua: *Olazar*, *Arabaolatza*, *Gibelola* y *Brinkola*. Hoy en día se conservan las paredes de la ferrería de Olazar, al borde del camino, así como el palacio del señor de de Arabaolatza, *Etxeaundi*. A su lado, podemos contemplar la casa solar de *Guriditegi*, con su escudo, que dió origen al apellido Guridi.

La metalurgia del hierro tuvo mucha importancia en la economía del valle de Legazpi y, debido a ello, nuestro municipio ostentaba muchos privilegios en la Parzonería General de Araba y Gipuzkoa. El derecho a vuelo sobre 165 Ha. de Oltza es uno de ellos. El recorrido largo, precisamente, para por dicho lugar.

IZENAK



Como en casi toda Euskal Herria Legazpi es un municipio donde se conservan gran cantidad de topónimos antiguos. En los dos recorridos tendremos la oportunidad de pasar por los siguientes lugares:

Olazar – Arabaolatzanea – Gibelola – Iruerrekaeta – Antsumaitz – Urkurutza – Oazurtza – Intzuntzaeta – Altzolazabal – Arlepo – Txiplategieta – Arriurdin – Amabirjiñaren sillea – Katabera – Nardegi – Jandoain – Trikuetxeta – Bederatziiturrieta – Barrendiola

Y también por: *Iturzabal – Santiespiritu – Sandrati – Portuguesa – Oltza – Arbelar – Aizkorritxo – Artzanburuzabal*

← *Amabirjiñaren sillea, en Katabera*